



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUKO IKASTETXEEI 2021-22ko IKASTURTERAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA: OINARRIAK

1.- Xedea

Altsasuko ikastetxeei zuzenduriko udal-ekintza diruz lagundu daitezkeen hiru lerro edo kontzeptu biltzen ditu, honako hauek: Esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten hezkuntza-proiektuetarako diru-laguntza; hezkuntza-materiala hobetzeko programetarako diru-laguntza; zentroetako eskola-kontseiluek eta/edo gurasoen elkarteek antolatutako euskarazko hezkuntza-jarduera osagarriek edo eskolaz kanpokoek eragindako gastuetarako diru-laguntza A, B eta D ereduetan ikasgelaz kanpoko euskarazko jarduerak bultzatzeko programak.

Diru-laguntza jaso dezakeen lehen kontzeptuari dagokionez, udalaren diru-laguntza hori ikastetxeek prestaturiko ekimen hezigarrien finantziazioa laguntzeko sortu da, betiere ekimen horiek hezkuntza-eskaintzaren eta zerbitzuen kalitatea nahiz trukeak sustatzeko eta hiritarrek baliabideen aprobetxamendua eta partaidetza bultzatzeko antolatzen badira.

Diruz lagundu daitezkeen bigarren kontzeptuari dagokionez, haren xedea da hezkuntzarako erabiltzen den eskola-materiala hobetzea. Horretarako, materiala berritu egin beharko dute ikastetxeek, irakasleen eta ikasleen errendimendua hobetze aldera.

Azkenik, eskola-jarduera osagarriek eta eskolaz kanpokoek eragindako gastuei dagokienez, deialdiaren xedea da laguntza ekonomikoa ematea beste pertsona fisiko eta/edo juridikoei, publikoek eta/edo pribatuek bere gain hartzen ez dituzten gastuak ordaintzen laguntzeko, jarduera horiek ahalik eta hobekien egitea bermatzeko.

2. Diruz laguntzen ahal diren kontzeptuak.

1. taldea.

Ikastetxeetan esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten proiektuak, baldin eta lan egiteko modu berrietara bideratuta badaude. Proiektuak 2021-22 ikasturtean egin behar dira.

2. taldea.

Hezkuntzan erabiltzeko eskola-materiala berritzeko programak, material hori hobetzea xede dutenak. Proiektuak 2021-22 ikasturtean egin behar dira.

3. taldea.

ikasturtean egindako eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuak

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



4. taldea.

2021-22 ikasturtean egindako eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuak – A,B,C ereduetako ikasleei zuzenduak badira.

Talde honetan barne hartzen diren jarduerak euskararen erabilera bultzatzea izango dute helburu eta eskolaz kanpoko eremu hauetako batean egingo dira:

- Ikastetxea eta helbidearen arteko autobusaren ibilbidea
- Ikastetxera sarrera edota ateratze ordu orduak (autobusaren inguruan)
- Jolas-orduak
- Ikastetxeko pasillo, eskailerak... ikastetxeko sarrera, irteera edota klase aldeketak
- Jantokia (bazkalordu edo atsedeen garaian)
- Euskararen Nazioarteko egunari loturiko jendaurreko jarduerak (abenduak 3)

3. Aplikatu beharreko arauak.

Diru-laguntza hauek emateko orduan eta emailearen eta erakunde onuradunaren artean harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek hartuko dira kontuan. Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta Altsasuko Udalaren diru-laguntzen esleipena arautzen duen ordenantza aplikatuko dira (96 zenbakidun NAOn argitaratu zen, 2004ko abuztuaren 11n eta haren aldaketa 10 zenbakidun NAOn, 2010eko urtarrilaren 22an).

4. Onuradunak

Hauek izan daitezke diru-laguntzen onuradunak:

1. taldea.

- Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edota Lanbide Heziketako Altsasuko ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita diru-laguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Baldintzak:

Deialdira aurkeztutako hezkuntza-proiektuak zentro onuradunak sortu eta garatu beharko ditu.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udala diru-laguntza ematen duen entitatea baita.

2. taldea.





Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edota Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita diru-laguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Baldintzak: Eskola-materialeak hobetzeko programen kasuan, ikastetxeek eskola-materialak hobetzera bideratutako urteko zenbatekoa egiaztatu beharko dute.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udala diru-laguntza ematen duen entitatea baita.

3. taldea.

- Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edota Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita diru-laguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udala diru-laguntza ematen duen entitatea baita.

4. taldea.

- Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edota Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita diru-laguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udala diru-laguntza ematen duen entitatea baita.

Kasu guztietan:

Ikastetxeek eta elkarteek egoitza eta ekintza-esparrua Altsasun izan beharko dute.

Entitate onuradunek udalak berdintasunean hezteko edo hezkidetzeko bultzatzeko antolatzen dituen programetan parte hartu dutela egiaztatu beharko dute. Frogarik eduki ezean, entitate onuradunek programa horietan parte hartzeko konpromisoa espresuki adierazi beharko dute.

Norbanakoek eta erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso, baldin eta Altsasuko Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin zorretan daudela-eta premiamendu bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero ere, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo haiek ordainarazteko prozesua bertan behera utzita egotea. Zerga-betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeke, hori adierazten duten ziurtagiriak

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



aurkeztu beharko ditu eskatzaileak, eskabidearekin batera. Aipatu ziurtagiriak sei hilabetez izango dira balioudunak ematen direnetik aurrera. Halaber, 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta Altsasuko Udalaren diru-laguntzen esleipena arautzen duen ordenantza aplikatuko da (96 zenbakidun NAO n argitaratu zen, 2004ko abuztuaren 11n eta haren aldaketa 10 zenbakidun NAO n, 2010eko urtarrilaren 22an).

5. Diru kopurua

Diru kopurua 15.000,00 €, 2021. urteko udal-aurrekontuan sartuta dagoen 1 3239 4820002 "ikastetxeentzako diru-laguntza deialdia" kontu-sailaren kontura.

Diru-laguntzen banaketa.

Horniketa ekonomiko guztia diruz lagundu daitezkeen kontzeptu guztien artean banatuko da.

1. taldea. 5.000€ Talde honi atxikitako zenbatekoa onartutako eskaeren artean banatuko da, honela:

- Heren bat onartutako eskaera guztien artean proportzionalki banatuko da.
- Heren bat proiektuaren kalitatearen arabera banatuko da.
- Aintzat hartuko da:
 - o Gaitasuna izatea parte-hartzaileen garapen integralean eragiteko eta ikasleen hezkuntza-prozesuaren garapenean laguntzeko (5 puntu).
 - o Proiektuaren egokitzapena —behar bezala garatua— helburu d(it)uen talde(et)an egon daitezkeen behar bereziko ikasleen beharrei erantzuteko (2 puntu).
 - o Eskola-komunitateko sektore guztien parte-hartzea proiektuaren fase guztietan (2 puntu).
 - o Koordinazio pedagogikoa egotea —behar bezala garatua— proiektuaren fase guztietan (2 puntu).
 - o Emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari arreta berezia eskaintzea curriculumetan eta hezkuntza-etapa guztietan.
 - o Emakumeen bereizkeria eragiten duten jarrera, eduki eta estereotipo sexistak ezabatzeke eta arbuiatzeko proiektuetan aurreikusitako neurriak, bereziki, testu-liburuei eta hezkuntza-materialei dagokienez.
 - o Emakumeek historian izan duten garrantzia aitortzea eta irakastea xede duten hezkuntza-neurriak ezartzea.

Diru-laguntza proiektu horietako bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera banatuko da puntuazio altuena lortu dutenen artean, betiere formula honi jarraikiz:

Banakako proiektuaren puntuazioa x 100

Proiektuek lortutako puntuazioen batura, guztira

Bi eskaerak azken puntuazio bera badute, a) balorazio-irizpidearen atalean puntuazio altuena lortzen duena lehenetsiko da.





Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Heren bat proiektuak ukitutako pertsona kopuruaren arabera banatuko da. Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren % 70eko diru-laguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatzeko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziatzeko izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jardueren aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jardueren finantzatzeko zenbatekoan diru-laguntzak osatzen duen ehunekoak izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoak jardueraren behin betiko kostuan.

Diru-laguntza honela ordainduko da:

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako % 40a (likidazioa) diru-laguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkezten direnean.

2. taldea: 7.000 €

Esleitutako kopurua ikastetxean 2021-22 ikasturtean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera banatuko da. Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren % 70eko diru-laguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatzeko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziatzeko izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jardueren aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jardueren finantzatzeko zenbatekoan diru-laguntzak osatzen duen ehunekoak izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoak jardueraren behin betiko kostuan.

Diru-laguntza honela ordainduko da:

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako % 40a (likidazioa) diru-laguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkezten direnean.

3. taldea: 2.000 €

Talde honi atxikitako zenbatekoa onartutako eskaeren artean banatuko da, honela: Heren bat onartutako eskabide guztien artean banatuko da, modu proportzionalan; heren bat jarduerak ukitutako pertsona kopuruaren arabera, eta heren bat gastuen arabera, modu proportzionalan. Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren % 70eko diru-laguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatzeko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoa kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



doikuntzak egiteko erabiliko da. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziazkoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduera- aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan diru-laguntzak osatzen duen ehunekoa izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoa jardueraren behin betiko kostuan.

Emandako diru-laguntza egindako eskola-jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko erabiliko da ezinbestean. Diru-laguntza honela ordainduko da: Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako % 40a (likidazioa) diru-laguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkezten direnean.

4. taldea: 1.000€

Talde honi atxikitako zenbatekoa irizpide hauen arabera banatuko da:

- Ikastetxeko euskara planaren barne diren jarduerak 45 puntu
- Jardueren kalitatea, originaltasuna edota izaera berritzailea, 25 puntu
- Autofinantzatze maila, 10 puntu
- Beste elkarte batzuekin elkarlana, 20 puntu

. Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren % 70eko diru-laguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatuko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziazkoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduera- aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan diru-laguntzak osatzen duen ehunekoa izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoa jardueraren behin betiko kostuan.

Emandako diru-laguntza egindako eskola-jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko erabiliko da ezinbestean. Diru-laguntza honela ordainduko da: Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako % 40a (likidazioa) diru-laguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkezten direnean.

6.Eskabideak eta dokumentazioa

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea, 1., 2. 3.eta 4. taldeentzat:
2021ko urriaren 30eako 14:00etan bukatuko da.

1. taldea.





Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Ikastetxeetan esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten proiektuak, baldin eta lan egiteko modu berrietara bideratuta badaude. Proiektuak 2021-22 ikasturtean egin behar dira.

Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia (oinarri hauei atxiki zaie eskabidea egiteko inprimakiaren eredia, "Ikastetxeetan egin beharreko proiektua diruz laguntzeko eskabidea"). Inprimaki bat diru-laguntzarako deialdira aurkeztutako proiektu bakoitzeko.
- Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua.
- Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eginda edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

2022ko irailaren 20a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Proiektuaren memoriako datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira, eta hizkera inklusiboa erabiliko da.

- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpulsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2021-22 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.

Diru-laguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk eduki ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

Entitate onuradunek aurkeztutako dokumentazioan hizkuntza ez-sexista erabiliko da, eta informazio guztiak sexuen arabera bereizita egon beharko du.

2. taldea.

Hezkuntzan erabiltzeko eskola-materiala berritzeko programak, material hori hobetzea xede dutenak. Proiektuak 2021-22 ikasturtean egin behar dira.

Ekimen bakoitzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia (oinarri hauei atxiki zaie eskabidea egiteko inprimakiaren eredia, honako hau: "Hezkuntzan erabiltzeko eskola materiala hobetzeko programa diruz laguntzeko eskabidea"). Inprimaki bat diru-laguntza deialdira aurkeztutako proiektu bakoitzeko.
- Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua.
- Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoa kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



2022ko irailaren 20a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Proiektuaren memoriako datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira, eta hizkera inklusiboa erabiliko da.
- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2021-22 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.
- Diru-laguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk eduki ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

3. taldea.

eskola-jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoek gastuak —baldin eta beste pertsona fisiko eta/edo juridiko batzuek, publikoek eta /edo pribatuek, bere gain hartzen ez badituzte—. Proiektuak 2021-22 ikasturtean egingo da.

Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia (oinarri hauei atxiki zaie eskabidea egiteko inprimakiaren eredua, "eskola-jarduera osagarria/eskolaz kanpoko jarduerarako diru-laguntza eskaera" izena duena).
- Aurkeztutako jardueraren aurrekontua.
- Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

2022ko irailaren 20a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Egindako jarduera azaltzen duen memoria. Datuek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute eta hizkuntza inklusiboa erabiliko da (memoria bat jarduera bakoitzeko).
- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2021-22ko ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.
- Diru-laguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten.





Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Ziurtagiririk eduki ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

Kasu guztietan:

Eskabideak udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, edota Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean aurreikusitako beste edozein tokitan.

4. taldea.

Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia (oinarri hauei atxiki zaie eskabidea egiteko inprimakiaren eredua, "eskola-jarduera osagarria/eskolaz kanpoko jarduerarako diru-laguntza eskaera" izena duena).
- Aurkeztutako jardueraren aurrekontua.
- Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

2022ko irailaren 20a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

-. Egindako jarduera azaltzen duen memoria. Datuek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute eta hizkuntza inklusiboa erabiliko da (memoria bat jarduera bakoitzeko).

-. Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2018-2019ko ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.

-. Diru-laguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk eduki ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

Kasu guztietan:

Eskabideak udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, edota Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean aurreikusitako beste edozein tokitan.

7. Eskaeraren akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, zuzen dezaten.

Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzitzat joko da, eta prozedura artxibatu egingo da. Horretarako, lehendabizi ebazpena egin

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua adierazitakoarekin bat eginez.

8. Izapideak eta proposamenak

Prozedurak Udaleko Kultura Saileko teknikariek izapidetuko dituzte, Idazkaritzaren edo Kontu-Hartzaitzaren aholkularitzarekin. Ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko egin beharrekotako jarduerak guztiak ofizioz egingo ditu organo honek. Beharrezkotzat jotako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

9. Ebazpena

Organo izapidegileak eskaerak aztertu eta gero, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Udaleko Kultura Batzordeari eta hark irizpena emango du. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeari igorriko zaio irizpena, hura baita ebazteko gaitasuna duen organoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 87. eta 88. artikuluetan ezarritakoa betetzeko, Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak erabakia hartu eta jendaurrean jarriko du, honako alderdi hauek adieraziz: onuradunen zerrenda, jaso beharrekotako zenbatekoak, ukatutako eskabideak eta haiek baztertzeko arrazoiak. Ebazpen horren aurka legeak aurreikusitako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

10. Beste diru-laguntza batzuk jasotzea

Deialdi honi jarraikiz, Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du inolaz ere erakunde onuradunak garatu beharrekotako jardueraren kostua gaindituko, ez berak bakarrik, ezta bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarra edo baliabideekin batera ere.

11. Publizitatea

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunak eta zenbatekoak adieraziz, udalaren web-orrian argitaratuko da, baita udaleko iragarki-taulan ere.

12. Betebeharrak ez betetzea

Oinarri hauetan edo diru-laguntzak emateko orduan xedatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, eman izana berraztertu egingo da. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Foru Legean xedatutakoak

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoa kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

arautuko du. Era berean, zigor-prozedurak aipatu Legeak xedatutakoa bete beharko du.

13. Errekurtsoak.

Oinarri hauek onartzeko administrazio-egintza honen kontra honako errekurtso hauek aurkeztu ahal izango dira, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, deialdia onartu duen organo eskudunari, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salan, BI HILABETEKO EPEAN, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.
- GORA JOTZEKO errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administratiboan. Errekurtsoa Auzitegiko Erregistroan aurkeztu beharko da, HILABETEKO epean oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.

- Datuen babesa

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu deialdi hau dela-eta jasotako datuak Altsasuko Udalaren titulartasuna duen fitxategi automatizatu batean bildu ahal izango direla (Gartzia Ximenez, 36, 31800 Altsasu). Halaber, jakinarazten dizugu datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubidea balia dezakezula, udaletxeko Erregistro Orokorrera jota (Gartzia Ximenez, 36 31800 Altsasu).

14. Datuen babesa

Altsasuko Udala da datu pertsonalak tratatzeko arduraduna, botere publikoak erabiliz dirulaguntzen deialdiak kudeatzeko erabiliko direnak. Datuak lagatzen ahalko dira, indarra duen legeria betez, eta udal webgunean eta dirulaguntzen atarian argitaratuko dira. Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea du, udal bulegoetara joanda. Datuen tratamenduaren zerrenda eta informazio gehigarria www.alsasua.net-eko Pribatutasun Politikan kontsulta ditzakezu.

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.alsasua.net>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.alsasua.net/eu>



001546071721252991069